ANBOTO ASTEKARIA

DOMU SANTU EGUNA 2026

Fernando Gallastegui, berak eraberritutako panteoi baten aurrean.

Panteoi hau ere Gallasteguik eraberritu zuen.

"Hilerri, panteoi eta hobiek mantentze-lana behar dute; guk pasioz egiten dugu hori"

FERNANDO GALLASTEGUI ARREGUI MARMOLERIA DURANGO Y DURANGUESADO

Fernando Gallasteguik hilerriak ditu lantoki, eta material egokiak erabilita bezeroak pozik izatea da bere helburua. Gallasteguik mantentze-lanen garrantzia azpimarratu du

Maialen Zuazubiskar DURANGALDEA

Hilerriak azken agurra eman eta joan zaizkigun senide eta lagunei bisita egiteko tokiak izaten dira. Toki horiek atseginak izatea eta txukun egotea ezinbestekoa izaten da. Eta horretan dihardu Fernando Gallasteguik.

Noiztik zabiltza hilerrietan lanean?

Ia 25 urte daramatzat lan hau egiten. Honen aurretik, igeltsero lanetan nenbilen eta anaiak kanposantuetan lan egiten zuen. Beti esaten nuen ez nuela inoiz hilerri batean lan egingo, eta, hara, probatu eta izugarri gustatu zitzaidan. Hilerrian bake itzela dago, ez dut hau baino leku baketsuagorik aurkitu. Beti esaten dut arazoak hilerriko atetik kanpora irtetean aurkitzen ditugula.

Zer da egiten duzuen lana?

Denerik egiten dugu: panteoiak eraberritu eta garbitu, gorpuak lurperatzeko hobietan plakak ipini, eta abar. Esaterako, panteoi askok eta askok urte mordoa dute, eta zaindu ezik pitzatu egiten dira, eta gero apurtu. Halakoetan, jausteko arriskurik badagoen begiratzen dugu, eta behin hori aztertuta konponketak egiten ditugu, baita garbiketa ere. Polito uzten ditugu, diru askorik gastatu barik.

Hobiak ere egiten ditugu, eta horiek konpondu eta garbitzen ditugu. Eta, jakina, gehien egiten dugun lana horma-hobietako plakak dira. Horixe da egiten diguten eskaririk handiena.

Zuen lana asko aldatu da urte hauetan guztietan?

Gu hasi ginenan, lau gorputik bat erre egiten zuten. Gaur egun, ostera, lau gorputik bat lurperatzen dela esango nuke. Sasoi batean, jendeak ez zituen senideen errautsak hilerrira ekartzen, baina esango nuke hori aldatzen dabilela gaur egun.

Erabiltzen duzuen materiala asko aldatu da?

Guk geuk asko aldatu dugu materiala. Orain urte batzuk, marmoldegiek marmol zuria ipintzen zuten hilerrietan. Baina material horrek zahartze txarra du. Azken urte hauetan, guk granitoaren aldeko apustua egin dugu. Oso material ona da eta 20 urteren ondoren ere plaka lehenengo egunean bezala egoten da. Bezeroak ahalik eta diru gutxien gastatuta, polito geratu dadin nahi izaten du, eta guk horixe egiten dugu.

> **"Bezeroek ahalik eta diru gutxien gastatuta polito geratzea izaten da gure helburua"**

Garbiketarako materiala ere asko aldatu da. Orain urte batzuk, panteoiak hareagaz garbitzen ziren, baina oso garestia da. Orain garbiketako beste teknika batzuk erabiltzen ditugu; esaterako, hidrogarbigailuak. Lan ederra egin daiteke teknika hauekin.

Bezeroei beti esaten diet hilerri, panteoi eta hobiek mantentze-lana behar dutela, eta guk pasioz egiten dugu lan hori. Mantentze-lan horiek sarri eginez gero, materialak zahartze hobea izaten du eta askoz merkeago irteten da.

Hilerriak ere garbitzen dituzue.

Bai, hilerriak garbitu eta konpontzen ditugu. Esaterako, Iurretako hilerriko lanak geuk egiten ditugu. Hilerri bat txukun eta garbi izatea ezinbestekoa da. Hilerrira adin guztietako jendea joaten da, eta sarritan oso jende nagusia. Niretzat ezinbestekoa da hilerrira datorren pertsona gustura sentitzea eta ingurua garbi izatea. Hilerriak toki atsegina izateko lan egiten dugu.

"Herentzia-gatazkak uste baino ohikoagoak dira, hartu-eman oneko familietan ere bai"

SARA ZUBIZARRETA HURTADO ABOKATUA

Testamentuak behar den moduan egiteko gakoak, oinordekoen eskubideak eta herentzien inguruko arazorik ohikoenak azaldu ditu Sara Zubizarreta abokatuak

J.Derteano ZALDIBAR

Testamentuak eta herentziak. Bizitzan, lehenago edo geroago, pertsonarik gehienei egokitzen zaie gai horiei heltzea. Baina noiz komeni da testamentua egitea? Zelan banatzen da herentzia? Eta zer egin daiteke oinordekoen artean desadostasuna sortzen bada? Sara Zubizarreta abokatuak (Zaldibar, 1990), testamentu eta herentzia gaietan adituak, galdera horiei erantzun die.

Zergaitik komeni da testamentua egitea eta noiz da horretarako unerik egokiena?

Testamentua egitea erraza eta merkea da. Gure borondatea argi uzten du, eta, ondasunen banaketari eta zergei buruzko aholkularitzagaz, arazoak saihesten eta kostuak aurrezten lagundu dezake. Ez da zahartu arte edo seme-alabak edo ondasunak izan arte itxaron behar; testamentua egitea komeni da, eta, gure egoera aldatzen bada, berrikustea. Testamentu-ahalordeak konfiantzazko pertsona bati aukera ematen dio erabakitzeko gu hiltzen garenean nork eta zelan jasoko duen herentzia. Oinordetza-ituna ere egin daiteke; horren bitartez, herentzia bizirik gaudela adostu dezakegu, eta akordioak berehala edo *post mortem* izan ditzake ondorioak.

Bizkaian, oinordetza-desberdintasunak daude oraindino hiribilduen eta elizateen artean?

2015etik, oinordetza-araubide bera dago euskal auzotasun zibila dutenentzat. Bizkaiko lur lauko zenbait ondasun higiezinetan tronkalitatea mantentzen da, ondasunak familiaren barruan transmititzea babesteko.

Euskal legediak aukera ematen al du seme-alaba bat edo batzuk besteen gainetik lehenesteko, edo baita herentziatik kanpora uzteko ere? Zein muga dago?

Zubizarretak Zaldibarren du abokatu bulegoa.

Bai, beti ere herentziaren heren bat seme-alabentzat edo ondorengoentzat gordeta. Hori legitima kolektiboa deitzen da eta testamentua egiten duenak askatasunez banatu dezake ondorengoen artean. Hori bai, ezkontidearen edo izatezko bikotekide erregistratuaren eskubideak eta ondasun tronkaletarako foru-arauak errespetatu behar dira.

Zelan utzi diezazkioke bananduta dagoen guraso batek bere ondasunak seme-alaba adingabeei ondasun horiek beste gurasoak kudeatu ez ditzan?

Testamentua eginda, ondasunak seme-alabei utzita eta konfiantzazko pertsona bat izendatuta, ondasun horiek seme-alabek 18 urte bete arte administratu ditzan. Beste gurasoa berariaz kanpora utzi behar da; bananduta egotea ez da nahikoa.

"Lagungarria da aholkularitza egokia jasotzea eta erabakiak argi uztea testamentuan"

Zer eskubide dute ezkonduta ez dauden bikoteek bietariko bat hiltzen bada?

Euskal legearen arabera, izatezko bikote modura erregistratuta daudenek bikote ezkonduen oinordetza-eskubide eurak dituzte. Ezkondu barik edo bikote modura erregistratu barik elkarregaz bizitzeak, berez, ez du herentzia jasotzeko eskubiderik ematen. Horregaitik, garrantzitsua da aurrez neurriak hartzea.

Zelan banatzen da herentzia pertsona bat testamenturik egin barik hiltzen denean?

Euskal zuzenbidearen arabera, lehenik ondorengoek jasotzen dute herentzia; ondoren, ezkontideak edo erregistratutako izatezko bikotekideak, aurreko ahaideek eta laugarren gradurainoko gainerako ahaideek, hurrenkera horretan. Bizirik dagoenaren usufruktua eta tronkalitatea errespetatzen dira.

Etxebizitza bat oinordetzan jasotzen denean, zer gertatzen da oinordekoak ados ipintzen ez badira? Esaterako, batek etxea saldu gura badu eta besteak ez?

Adostu egin daiteke oinordekoetariko bat etxebizitzagaz geratzea gainerakoak konpentsatuta, edo etxebizitza saltzea. Akordiorik lortzen ez bada, epaitegi bidezko banaketak enkantean amaitu dezake, betiere erabilera-eskubideak errespetatuta.

Ohikoak dira familiako gatazkak herentziak banatzerakoan?

Herentzia-gatazkak uste dugun baino ohikoagoak dira, baita ordura arte harreman ona izandako familietan ere. Gatazka iturri izan daitezke ondasunen balorazioa, aurretik egindako dohaintzak zein etxebizitzaren erabilera. Horiek saihesteko, lagungarria da aholkularitza egokia jasotzea eta testamentuan erabakiak argi uztea.

Gaba Baltzeko ekitaldi bat, iaz, Durangon. BERBARO

Herri bat gehiago sasoi bateko Gau Beltza berreskuratzeko zerrendan: Zaldibar

Gaur kalabazak hustuko dituzte. Bihar surtara botako dituzte beldurrak

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

Gauza jakina da hau: Halloween eta Ameriketako Estatu Batuetako ohiturak gure artera ailegatu baino lehenago, Euskal Herrian Gau Beltza edo Arimen Gaua ospatzen zen. Behar zen moduan, gainera. Beldurra emateko istorio, trapuzahar, kalabaza eta guzti. Eta azken urteotan Durangaldeko herri askotan dabiltza garai bateko usadioa berreskuratzen. Bada, aurten, beste udalerri bat batuko da antzinako ohitura hori berreskuratzeko zerrendara: Zaldibar. Bertan, lehenengoz ospatuko dute Gau Beltza ohitura galdu zenetik hona. Herriko guraso talde bat dabil antolakuntza lanetan: "Batetik, inguruko herrietan Gau Beltza berreskuratzen hasi zirela ikusten genuen, eta, bestetik, Zaldibarren Halloween indarra hartzen ikusteak eta herriko umeak mozorro komertzialekin kalean ezelako egitaraurik barik ibiltzeak zer pentsatu ematen zigun", azaldu du Nerea Urizar ama zaldibartarrak. Udalak Gau Beltza antolatzera deitu zuen orduan, eta guraso talde txiki bat batu zen bertan, egitarau polit bat egiteko: gaur, barikua, kalabazak husteko tailerra egingo dute. 17:00etarako ipini dute ordua, udaletxeko plazan. Eta bihar, urriak 31, Gau Beltza ospatuko dute. 19:00etan kalejira egingo dute herriko kaleetan, udaletxetik hasita, eta ipuin kontalariak ere egongo dira. Amaieran, *Beldurrak sutara* ekitaldia eta dantza herrikoia egingo dituzte. "Ekitaldian, Zaldibarko umeek euren beldurrak idatziko dituzte paper batean, eta surtara botako dituzte gero, sua egingo dute-eta herriko plazan. Zelanbait esateko, keagaz batera desagertuko dira beldurrok", azaldu du Urizarrek. Izan ere, eskolako umeak euren beldurrak papereratzen ibili dira egunotan, eta paper horiek garretara botako dituzte zapatuan. Baina umeak bakarrik ez. Antolatzaileek helduak ere gonbidatu dituzte ekitaldian parte hartzera eta beldurrak paperetan idaztera. Ekitaldia dantzan amaituko dute.

Hamaika ekitaldi herrietan

Nerea Urizarrentzat eta gainerako antolatzaileentzat aurtengoa lehenengo katebegia izan daiteke ohituraren "transmisioan eragiteko". Eskualdeko gainerako herrietan ere orain urte batzuetako ildoari eutsiko diote. Zornotzan, adibidez, kalejira, beldurrak erretzeko ekitaldia eta diskofesta egingo dituzte. Iurretan beldurrezko ibilbidea egingo dute lehenengo, eta Abadetxean Errementari filma emango dute. Elorrion Gaztainerre, 'beldurrak sutara' eta aurpegi margotzea izango dituzte zain, eta Berrizen Erica Liquetek beldurrezko ipuinak musikatuko ditu. Durangon Arimen Etorrera irudikatuko dute Tabiratik Andra Marira. Gero, ikuskizuna egingo dute elizpean.

Gau Beltzeko ekitaldi eta ordutegi guztiak 19. orrialdeko agendan kontsultatu daitezke.